

**UDAL-BATZARRAK 2.003KO APIRILAREN 4AN EGINDAKO  
EZOHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

**LEHENDAKARIA:** Jose M<sup>a</sup> Sarasola Goenaga

**ZINEGOTZIAK:**

Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka  
Miren Maite Aizpurua Etxeberria  
Mikel Errazkin Agirrezabala  
Manuel Odriozola Iruretagoiena  
Rafael Uribarren Axpe  
Mikel Zubillaga Galarraga

**IDAZKARIA:**

Nerea Etxebarria Atutxa

**AZTERGAIAK:**

- 1.-Hizkuntz Politika berri baten aldeko mozioa.
- 2.-Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren onarpena.
- 3.-Euskal Herriko Hizkuntz Eskubideen Kartaren onarpena.
- 4.-Euskararen Udal Ordenantzen hasierako onespina.
- 5.-Euskalgintzako Komunikabide eta taldeen dirulaguntzak.
- 6.-Anoetako armariaren aldaketaren hasierako onarpena.

Anoetako Udaetxean, bi mila eta hiruko apirilaren lauan, arratsaldeko seietan, Udal-Batzarra bildu da, Ezohizko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Nerea Etxebarria Atutxak, Udal honetan Idazkari Akzidentala bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK**

Sarrera bezala, Jose Maria Sarasola alkate jaunak esan du gaurko Udalbatzarra honen arrazoia zein den azaldu nahi izan du: esan du azken aldian Euskalgintzan lanean dabilzanak eta euskararen munduak orohar, jaso dituzten eraso eta artikulatuari aurre egin nahian “Anoetako Egunkariaren aldeko Batzordeak” egun berezi bat antolatu duela gaurko eta dirubilketa bat egin nahi duela festa giroan.

Jarraian zera esan du: “Hitzetatik ekintzera joan behar dugunez, Anoetako Udaletxeko Euskara Batzordeak euskaldunon hizkuntz eskubideen aldarrikapena egiteko eta hizkuntz eskubide hauek Anoetan praktikan jartzeko akordioak hartzeko asmoarekin ospatzen da gaurko Udalbatzarra. Ekarri diren mozio guztiak guztion artean adostuta ekartzen saiatu gara”

### **1.- Hizkuntz Politika berri baten aldeko mozioa.**

Alkate jaunak ASA taldeko zinegotzia eta Euskara Batzordeburua den Mikel Errazkin jaunari eman dio hitza.

*Mikel Errazkin jaunak esan du, gaurko egun hau Euskara Batordetik historikotzat bezala hartzen dela, gure euskalgintzako historia txiki honetan. Era berean historiaren errebaso txiki bat egin du euskara arloan Anoeta eta inguruan emaniko urrats garrantzitsuenak azalduz eta Euskara Batzordearen sorrera nola izan zen eta zein arrazoi izan ziren horretarako azalduz.*

*Bestalde, Udalean hartutako bi erabaki hartu nahi dituela kontuan dio, bere garaian ahobatez onartuak izan zirelako eta izan zuten garrantziagatik: 1999an UEMAn sartzeko erabakia alde batetik, eta erabilera planaren onarpena bestetik.*

*Jarraian mozioaren edukina eta muina zein diren azaldu du.*

Ikusirik Anoetako Euskara Batzordeak aurkezturiko mozioa.

## **Erabakia:**

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez, hurrengo mozioa onartu dute:

# **HIZKUNTZ POLITIKA BERRI BATEN BEHARRA**

*“Mendeetan zehar, herri batzuek beste herri batzuk menperatzeak, kultura eta hizkuntza ere menperatzea ekarri du, berdin antzinaroko inperioetan nola estatu-nazio aro berrian ere. Politika horien ezaugarri konstantea izan da menperatuen hizkuntzen ordezkapena, nortasunaren ardatz nagusienetarikoa baita. Dinamika suntsitzaile horiek gaur egun ere gertatzen dira; Euskal Herria eta euskara horren lekuko nabarmen dira.*

*XX. mendean zehar, batik bat euren identitatea defenditu beharraren kontzientzia hartu duten herri menperatuen presioaren eskutik, hizkuntz eskubideen inguruko formulazioak gorantz joan dira, bai nazioarteko legerian eta bai burujabetasun maila bat izanik euren hizkuntz politika arautu ahal izan duten herrien legerian. Hizkuntz eskubideak zapalduta sentitzen dituzten herriek, zor zaien eskubidea aldarrikatu eta garatzen saiatzen ari dira.*

*Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala garapen horren lekuko eta mugari da aldi berean, hizkuntz komunitateen arteko berdintasun printzipioa aldarrikatzen eta pertsona, hizkuntz talde zein hizkuntz komunitate ororen eskubideak bermatzeko karta formulatzen baitu. Karta hori, hizkuntzen arteko gatazkak konpontzeko bidea ez ezik, euren eskubideen kontzientzia hartzeko tresna eraginkorra ere bada hizkuntz eskubideak urratuta dituzten herrientzat.*

*Deklarazio honetan bost printzipio nagusi agertzen dira, ezinbestez, hizkuntz eskubideak bermatzeko orduan: Burujabetasuna, Berdintasuna, Berreskurapena, Herri-nortasuna lehenestea eta Erabilera.*

*Printzipio horiek kontuan hartzen dituzten herriek, euren hizkuntza berreskuratu eta babesteko aplikatzen duten politikaren araubidea hiru ardatz nagusitan garatzen da :*

*-Nazio hizkuntza administrazio eta zerbitzu publikoen hizkuntza izatean.*

*-Hezkuntzaren bidez hizkuntzaren transmisioa ziurtatzean.*

*-Sektore pribatuak herritarrekiko duen harremanetan hizkuntzaren erabilera ziurtatzean, gutxienez berdintasun irizpidearekin.*

*Horrez gain, lurraldetasuna ere irizpide nahiko hedatua da, lurraldearen oreka soziolinguistikoa mantentzearen.*

*Euskal Herria printzipio horiek kontuan hartzetik oso urrun dago. Euskaldunek euskarari aplikatzen zaion araubidea jasan behar dute eta bertan horietariko printzipio bakar bat ere ez da betetzen. Bestalde, indarrean dauden hizkuntz politiken araubidean aipatu ditugun hiru ardatz nagusiek ez dute tokirik oraindik. Ondorioz, euskarak desagertzeko bidean jarraitzen du.*

*Azken hogeitun urteetan indarrean jarri diren neurriak, lurralde desberdinetan egon diren aurrerapen edo atzerapenak gora-behera, ez dute lortu euskararen egoera larriari inflexio puntu argirik jartzea. Neurri instituzional horiei eta, batez ere, herritarren kemen izugarriari esker euskararen egoera hobetzea lortu bada ere, ez da arriskutik atera.*

*Berez indarrean dagoen Hizkuntza Politika agortua dagoela esaten dugunean ondoko diagnostikoan oinarritzen gara:*

*-Euskararen gainbehera gelditu egin den arren, euskaldunen kopuruak ez du gora egin azken bi hamarkadetan, %23an gelditu da (euskaldun berrien kopurua hildako euskaldun kopuruaren adinakoa baita). Azterketa lurraldeka eginez gero, aldiz, zenbait lurraldetan euskararen gainbehera larria nabarmentzen da. Bestalde, lurralde euskaldunenetan hizkuntz ordezkatzeko prozesua ez da gelditu.*

*-Euskararen ezagutza belaunaldi berrietan ez dago ziurtatua. Izan ere, eskolaratze urteak bukatzen dituztenean gizarteratzen diren gazte erdaldun elebazarren portzentajeak urrundu egiten du euskararen transmisioa. Euskara ofiziala den eskualde batzuetan, portzentajea %46 da.*

*-Administrazio nagusietako hizkuntza euskara izatea ez da betetzen. Adibidetzat dugu Osakidetzak 1800 lanpostu berri sortzeko garaian euskara, EAEko hizkuntz ofiziala, derrigorrezkotzat hartu ez izana.*

*-Herritarren frustrazioa eta erdaren kulturek politikoki eta juridikoki duten posizio nagusiak eragin nabaria dute euskararen erabilerearen hazkunderaren moteltzean. Berez ere hazkundera nahiko geldoa izanik, lurralde euskaldunenetan moteltze nabarmena izan du 1997-2001 epean.*

*-Euskararen lurraldea, euskal lurraldea, zazpi eremu administratibo linguistikotan banatuta dago: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa Garaiko zonalde euskalduna, mistoa eta erdalduna, Estatu Frantsesaren menpe dauden hiru lurraldeak eta Trebiñoko Konderrria eta Turtzioz-Billaberde. Horietariko bakoitzean euskarak estatus juridiko desberdina du. Euskaldunak, banaketa horren arabera,*

*euskarak inolako onarpen ofizialik ez duen lurraldean egon daitezke edo menpeko ofizialtasuna duen lurraldeetan.*

*-Behatokiaren txostenetan azaltzen denez, Euskal Herrian Hizkuntz eskubideen urraketak ematen dira, herrialde eta administrazio maila guztietan. Hauek gehienetan erakunde bakoitzak jarritako lege propioen urraketak dira eta oinarritzko beste eskubide batzuk ere urratzen dituzte (Epaiketa justua, irakaskuntza, gaixoen harrera eta abarren eskubideak)*

*-EAEko Hizkuntza Politika, 1979ko Autonomi Estatutua eta 1982ko Euskararen legean oinarritzen da. Azken 20 urtetan errealitate sozio-politiko-linguistikoa asko aldatu da. Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen deklarazioaren arabera: "Estatu gehieneko joera bateratzaileak, desberdintasuna murriztera eta kultura zein hizkuntzazko aniztasunaren aurkako jarrerak handitzera jo du; (...) Mundializazio prozesuak, ekonomiaren errealitatea lehenik, eta ondorioz, informazio, komunikazio eta kulturarena aldatzea ekarri du" (ez dugu ahaztu behar internet eta komunikazio-sareen garaiari gaudela). Mundua bi bloke nagusitan banatuzetik (Estatu Batuak-Sobiet Batasuna) batera aldatu da. Alegia, hizkuntz politika diseinatu zeneko gerra hotzetik globalizazio arora pasa gara.*

#### *ANOETAKO UDALAK ZERA DIO:*

*Euskal Herriak Hizkuntz Politika berri bat behar du. Euskal Herriko hizkuntz legeria, beste herri batzuetan ezarrita dagoenarekin konparatuz, argi ikusten da euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatzeko eta Euskal Herriak bere hizkuntz eskubideak bermatuak izan ditzan, ezinbestekoa dela Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalean aipatutako bost printzipio horien arabera hizkuntz politika ezartzea (Burujabetasuna, Berdintasuna, Berreskurapena, Herri-nortasuna lehenestea eta Erabilera). Euskaldunen hizkuntz eskubideen bermeak, norbanakoenak ziurtatzea ez ezik, euskararen etorkizuna bermatzea eta berreskurapena ziurtatzeko bideak jartzea ere eskatzen du. Hizkuntza eskubideak guztienak direnez guztion eginkizuna da hauek betetzea."*

## **2.- Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren onarpena.**

Jose Maria Sarasola alkate jaunak Mikel Errazkin ASA taldeko zinegotzi eta Euskara Batzordeburuari eman dio hitza.

*Mikel Errazkin jaunak Bartzelonako Hizkuntza Eskubideen deklarazioaren laburpena egin du.*

Ikusirik Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

**Erabakia:**

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez jarraian hitzez hitz jasotzen den “Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala” onartu dute:

**“Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala**  
**(Bartzelona, 1996ko ekainak 6-9)**

**ATALAURREKOA**

*Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertsal hau sinatzen dugun instituziook eta gobernuz kanpoko erakundeak, Bartzelonan bildurik, 1996ko ekainaren 6tik 9ra.*

*Ikusirik Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 1948koa, bere aitzin solasean baieztatzen duena “bere fedea oinarriko giza eskubideengan, gizakiaren duintasun eta balioarengan eta gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasunarengan” eta bere bigarren artikuluan ezartzen duena “gizaki orok dauzka eskubide eta askatasun guztiak”, “arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikazko zein bestelako iritzi, jatorri nazional edo sozial, egoera ekonomiko, jaiotza edo bete edozein kondizioengatik” inolako bereizkeriarik onartu gabe.*

*Ikusirik Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko ituna, 1966ko abenduaren 16koa, (27. artikulua), eta data bereko Eskubide Ekonomiko Sozial eta Kulturalen Nazioarteko ituna, zeinek bere hitzaurreetan baieztatzen baitute gizakia ezin dela libre izan ez badira sortzen eskubide zibil, politikoez, ekonomikoez, sozialez eta kulturez gozatzeko bidea ematen dioten baldintzak.*

*Ikusirik 47/135 ebazpena, 1992ko abenduaren 18koa Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrarena, gutxiengo nazional edo etniko, erlijioso eta linguistikoen kide diren pertsonen eskubideei buruzko Deklarazioa bere egiten duena.*

*Ikusirik Europako Kontseiluaren deklarazioak eta hitzarmenak, hala Giza Eskubideen eta Oinarriko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena, 1950eko azaroaren 4koa (14. artikulua); Europako Kontseiluaren Ministro-Kontseiluaren Konbentzioa, 1992ko ekainaren 29koa, zeinaren bidez onesten baitzen Erregioetako zein gutxiengo hizkuntzei buruzko Europar Karta; Europako Kontseiluaren Gailurraren Deklarazioa, 1993ko urriaren 9koa, gutxiengo nazionaleri buruzkoa; eta gutxiengo nazionalen babeserako marko-konbentzioa 1994ko azarokoa.*

*Ikusirik Santiago de Compostelako Deklarazioa, Nazioarteko PEN Club-ena, eta 1993ko abenduaren 15eko Deklarazioa, Nazioarteko PEN Club-eko itzulpen eta hizkuntz eskubideen Komitearena, Hizkuntz Eskubideei buruzko munduko konferentzia egiteko proposamenari buruzkoa.*

*Ikusirik ezen Brasilgo Recife-ko Deklarazioan (1987-10-9) Kulturarteko Komunikazioa Garatzeko Nazioarteko Elkartearen XXII. Mintegiak Nazio Batuei, gomendatzen diela beharrezko neurriak har ditzaten Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsal bat onartzeko eta aplikatzeko.*

*Ikusirik Nazioarteko Lanaren Erakundearen 169. Konbentzioan, 1989ko ekainaren 26koa, herrialde independenteetako herri indigenei buruzkoa.*

*Ikusirik ezen Herrien eskubide kolektiboen Deklarazio Unibertsalak, 1990eko maiatzekoak, deklaritzen duela edozein herri duela eskubidea bere kultur, hizkuntza eta antolatze erak adierazteko eta garatzeko, eta hori lortzeko, politikazko, hezkuntzazko, komunikaziozko eta administrazio publikozko egiturez, marko politiko desberdinetan, bere burua hornitzeko.*

*Ikusirik Hizkuntza bizien irakasleen Nazioarteko Federazioaren Biltzar Orokorrak 1991ko abuztuaren 16an Hungariako Pecs-en egindako azken Deklarazioa, zeinean gomendatzen baita hizkuntz eskubideak gizabanakoaren oinarriko eskubidetzat hartuok izan daitezela.*

*Ikusirik Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte-Kontseiluaren Giza Eskubideen txostena, 1994ko apirilaren 20koa, Herri indigenen eskubideei buruzkoa, zeinetan norbanakoen eskubideak eskubide kolektiboen argitan baloratzen baitira.*

*Ikusirik giza eskubideen Amerikarako Batzordeen Deklarazioaren zirriborroa, herri indigenen eskubideei buruzkoa, 1995eko irailaren 18an onetsia 1278. bilkuran.*

*Kontuan izanik ezen munduko hizkuntza mehatxatu gehienak subiranotasunik gabeko herriei dagozkiela eta kontuan izanik auto-gobernurik eza nahiz bere egitura politiko-administratiboa eta bere hizkuntza inposatzen duten estatuak direla hizkuntza mehatxatuen garapena eragotzi eta hizkuntz ordezkatzea azkartzen duten eragile nagusietakoak.*

*Kontuan izanik ezen inbasioak, kolonizazioak eta okupazioak eta baita menperatze politiko, ekonomiko edo sozialaren beste kasuek, sarritan hizkuntza arrotza inposatzea dakartela, edota gutxienez hizkuntzen balioen pertzepzioaren endekatzea eta hiltunen hizkuntz leialtasunari kalte eragiten dioten jarrera linguistiko hierarkizatzaileak; eta kontuan izanik arrazoi horiexengatik subiranotasunera heldu diren herri batzuen hizkuntza hizkuntz ordezte-prozesuan murgildurik daudela, antzinako botere kolonizatzaile edo inperialaren hizkuntzaren alde jokatzeko duen politikarengatik.*

*Kontuan izanik ezen komunitate linguistikoen arteko bizikidetzak baketsua bermatzeko ezinbestekoa dela aurkitzea halako guztien gaineko printzipio batzuk non hizkuntza guztien sustapena, errespetua eta gizarte-erabilera publiko zein pribatua ziurtaturik gera daitezkeen.*

*Kontuan izanik ezen hizkuntzaz kanpoko hainbat faktorek (historikoak, politikoak, lurraldearekikoak, demografikoak, ekonomikoak, soziokulturalak, soziolinguistikoak eta jarrera kolektiboei dagozkienak) hizkuntza ugarien desagertzea, bazterketa eta endekatzea eragiten duten problemak sorrarazten dituztela, eta beharrezkoa dela, hortaz, hizkuntz eskubideak ikuspegi global batetik planteatzea, kasu bakoitzean konponbide berezi eta egokiak aplikatu ahal izan daitezkeen.*

*Oharturik ezinbestekoa dela Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsal bat, bide emango duena hizkuntz arteko desorekak zuzentzeko eta, modu horretan, ahalbidetzeko, bai hizkuntza guztien errespetua eta garapen osoa baita mundu osoan zehar bake linguistiko zuzen eta ekitatezkoaren printzipioen ezarpena ere, bizikidetzaren sozialari eusteko gako-faktorea baita.*

## **DEKLARATZEN DUGU**

### **HITZAURREA**

*Hizkuntza bakoitzaren egoera, aurreko kontsiderazio guztiak ikusirik, faktore desberdin ugarien elkartze eta elkarreraginaren emaitza da. Horietako faktoreak dira: politiko-juridiko, ideologikoak eta historikoak, demografikoak eta territorialak, ekonomikoak eta sozialak, kulturalak, linguistikoak eta, azkenik, subjektiboak.*

*Egungo egoeraren ezaugarri zehatzak honako hauek dira:*

- I. Estatu gehienek sekulako joera bateratzailea, desberdintasuna murriztera eta kulturazko zein hizkuntzazko aniztasunaren aurkako jarrerak laguntzera darama.*
- II. Mundializazio prozesua, ekonomiarena lehenik, eta ondorioz, informazioaren, komunikazioaren eta kulturarena, zeinak azpikoz gora jartzen baititu komunitate linguistiko bakoitzaren barnekohera bermatzen duten harreman-esparruak eta elkarreraginak.*
- III. Hazkunde-eredu ekonomizista, nazioz haraindik talde ekonomikoek bultzatua, zeinaren arabera gauza berdina baitira aurrerapena eta desaraupena, indibidualismo lehiakorra eta askatasuna, desberdintasun ekonomiko, sozial, kultural eta linguistiko larriak gero eta bortitzago sortuz doana.*

*Une honetan hizkuntz komunitateek jasaten dituzten mehatxuek, dela autogobernurik ezarengatik, edo demografia murrizteagatik nahiz zatian edo erabat sakabanatuarengatik, dela kodifikatu gabeko hizkuntza izateagatik, edota nagusiaren aurkako kultur eredia izateagatik, eragiten dute*

ezinezkoa gertatzea hizkuntza askorentzat bizitzea edo goratzea, kontuan hartu ezean ardatz nagusi hauek:

- I. Politikaren ikuspegitik, desberdintasun linguistikoarentzat halako antolaketa pentsatzea non hizkuntz komunitateek benetako partaidetza izango duten hazkunde-eredu berri honetan.
- II. Kultura ikuspegitik, guztiz bateragarri bihurtzea mundu-mailako komunikazio-esparrua alde batetik eta garapen-prozesuan herri, hizkuntz komunitate eta pertsona orok partaidetza orekatua edukitzea, bestetik.
- III. Ekonomiaren ikuspegitik, garapen sostengarria bideratzea, bakoitzaren partaidetzan, gizartearen oreka ekologikoaren errespetuan eta hizkuntza zein kultura guztien arteko erlazio ekitatiboetan oinarriturik.

Horregatik guztiarengatik, deklarazio honek ez estatuak baizik eta hizkuntz komunitateak hartzen ditu abiapuntutzat eta gizateria osoarentzako garapen sostengarri eta orekatua bermatzeko gauza diren nazioarteko erakundeak indartzeko ahaleginean sartzen da, eta helburutzat dauka hizkuntz desberdintasunaren marko politikoa, bizikidetzan eta elkarren errespetu eta onuran oinarritua biltzea.

## **ATARIKO TITULUA**

### **Kontzeptuen zehazpena**

#### **1. artikulua**

1. Deklarazio honetan hizkuntz komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu batean \*eremua errekonozitua izan ala ez\* finkatua, bere burua herritzat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat. Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia.

2. Deklarazio honen abiapuntua da hizkuntz eskubideek era berean indibidualak eta kolektiboak diren printzipioa eta hizkuntz eskubideen oso-betetasunaren erreferentetzat hartzen du hizkuntz komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan, eremu hau ulerturik ez soilik komunitate hori bizi deneko geografi zati gisa, baizik eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere.

*Erreferente horretatik abiatuta ezar daitezke mailakatze edo continuum modura artikulua honetako bereko*  
*5. puntuari aipatzen diren talde linguistikoaren eta bere komunitatearen lurraldetik at dauden pertsonen*  
*eskubideak.*

*3. Deklarazio honen efektuetarako, ulertzen da bere lurralde propioan daudela eta hizkuntz komunitate*  
*bateko kideak direla ondoko baldintzak betetzen dituzten giza multzoak:*

- I. Muga politiko edo administratiboengatik bere komunitatearen gune nagusitik bereizita*  
*daudenak;*
- II. Geografi eremu txiki batean, beste hizkuntz komunitateetako kideez inguraturik historian zehar*  
*kokaturik daudenak;*
- III. Antzeko historikotasuna duten beste hizkuntz komunitateetako kideekin batera partitzen duten*  
*geografi eremuan finkatuta daudenak.*

*4.- Deklarazio honen efektuetarako bere lurralde historikoan dauden hizkuntz komunitateetat*  
*edukiko dira herri nomadak beren joan-etorrien eremuetan eta asentamendu barreiatuetan bizi diren herriak.*

*5. Deklarazio honek talde linguistikotzat dauka edozein giza talde, hizkuntza berea duena, eta beste*  
*hizkuntz komunitatearen lur eremuan kokatuta dagoena, azken honen adinako historikotasunik gabe:*  
*halakoak baitira inmigratuak, errefuxiatuak deportatuak eta diasporetako kideak.*

## **2. artikulua**

*1. Deklarazio honek sostengatzen du ezen hizkuntz komunitate eta talde desberdinak lurralde konpartitu*  
*batean kokaturik daudenean, Deklarazio honetan formulatutako eskubideen egikaritzea, denon arteko*  
*errespetuan eta garantia demokratiko handien artean arautuko dela.*

*2. Behar bezalako oreka soziolinguistikoa xedatzerakoan, esan nahi baita, hizkuntz komunitate eta talde*  
*horien zuzenbideen eta horietako kideen zuzenbideen arteko artikulazio egokia bilatzerakoan,*  
*beharrezkoa da kontuan hartzea, bai haien historikotasun erlatiboa eta demokratikoki adierazitako*  
*borondatea, eta baita tratu birrorkatzailea, helburu konpentsatzailekoa, gomenda dezaketen beste*  
*faktoreak ere; esate baterako, komunitate eta talde desberdinak elkarrekin bizitzera bultzatu dituzten*  
*migrazioen derrigorrezkotasuna, edo bere ahulezia politiko, sozioekonomiko edo kulturalaren maila.*

## **3. artikulua**

1. Deklarazio honek eskubide pertsonal besterenezintzat, eta edozein egoeratan egikaritzeko modukotzat, dauzka honako hauek:

- I. Hizkuntz komunitate bateko kideztat ezagutua izateko eskubidea.
- II. Hala jendaurrean nola maila pribatuan hizkuntza erabiltzeko eskubidea.
- III. Norberaren izena erabiltzeko eskubidea.
- IV. Jatorrizko hizkuntz komunitateko beste kideekin harremanak izateko eta elkartzeko eskubidea.
- V. Kultura propioa mantendu eta garatzeko eskubidea.
- VI. Eta, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko itunean, 1966ko abenduaren 16koan, eta halaber, data bereko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Politikoen Nazioarteko Itunean, aitortutako eduki linguistikozko eskubide guztiak.

2. Deklarazio honek kontsideratzen du ezen hizkuntz taldeen eskubide kolektiboak, haien kideentzat aurreko lerroaldean ezarritakoez gain, eta 2.2. artikuluko zehaztapenen arabera, ondoko hauetara zabal daitezkeela:

- I. Hizkuntza eta kultura propioaren irakaskuntza izateko eskubidea.
- II. Zerbitzu kulturalak edukitzeko eskubidea.
- III. Taldearen hizkuntzak eta kulturak komunikabideetan presentzia ekitatiboa izan dezaten eskubidea.
- IV. Erakunde ofizialetan eta harreman sozioekonomikoetan norbere hizkuntza harrera izateko eskubidea.

3. Honaino aipatutako pertsona eta taldeen eskubideak ezin daitezke oztopo izan haien eta komunitate linguistiko hartzailearen arteko interrelaziorako eta integratziorako, ez eta ere inolako mugapen komunitate honek edo bere kideek duten eskubiderako bere lurralde esparru osoan hizkuntza propioaren osotasunezko erabilera publikoa egiteko.

#### **4. artikulua**

1. Deklarazio honek kontsideratzen du bereaz ateko hizkuntz komunitate baten lurraldera lekualdatzen eta bertan kokatzen diren pertsonak, eskubide eta betebeharra dutela bertan integratziozko harremanak izateko. Integrazioak esan nahi du pertsona horien halako sozializazio gehitua, non jatorrizko ezaugarri kulturalak gorde ahal izango dituzten, baina hartzen dituen gizartearekin nahikoa erreferentzia, balore

*eta portaera parekatuz, gizartearen funtzionamendu globalak, komunitate hartzailearen kidearenak baino zailtasun gehiago izan ez ditzan.*

*2. Deklarazio honek kontsideratzen du, aitzitik asimilazioa —hau da, pertsonak gizarte hartzailean akulturatzea, bere jatorrizko ezaugarri kulturalen ordeztuak gizarte hartzailearen erreferentzia, balore eta portaera propioak hartuz— ez dela inola ere derrigortua edo induzitua izango, baizik eta askatasun osoz egindako aukera baten ondorio.*

#### **5. artikulua**

*Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera hizkuntz komunitate guztien eskubideak berdinak diren, kontuan izan gabe bere kontsiderazio juridiko edo politikoa den hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo minoritarioarena. Hizkuntza erregional edo minoritario bezalako izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen zeren eta, kasu batzuetan hizkuntza erregional edo minoritariotzat aitortua izateak eskubide hauek egikaritzea erraz badezakeen ere, horiek eta antzeko izendapenak usuegi erabiltzen dira hizkuntz komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz.*

#### **6. artikulua**

*Deklarazio honek baztertu egiten du hizkuntza bat lurralde bateko hizkuntza propietzat hartzea horretarako arrazoi bakarra bada estatuaren hizkuntza ofiziala izatea edo lurralde horretan administrazioaren edo jarduera kultural jakin batzuen hizkuntza gisa erabiltzeko tradizioa edukitzea.*

### **LEHEN TITULUA**

#### **Printzipio orokorrak**

#### **7. artikulua**

*1. Hizkuntza guztiak dira nortasuna kolektibo baten adierazpen eta baita errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna; hortaz, funtzio guztietan garatu ahal izateko baldintzez gozatzeko aukera izan behar dute.*

*2. Hizkuntza bakoitza da kolektiboki eraikitako errealitatea eta komunitate baten magalean bilakatzen da erabilgarri norbanakoentzat, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa.*

#### **8. artikulua**

1. Hizkuntza komunitate orok daukate eskubidea baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gizarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin.

2. Hizkuntz komunitate orok daukate eskubidea hizkuntzaren transmisioa eta jarraikuntza ziurtatzeko behar diren baliabideak eskura izateko.

#### **9. artikulua**

Hizkuntz komunitate orok daukate eskubidea bere hizkuntz sistema kodetzeko, estandarizatzeko, garatzeko eta sustatzeko, derrigorturiko edo induzituriko interferentziarik gabe.

#### **10. artikulua**

1. Hizkuntz komunitateko orok eskubide berdinak dituzte.

2. Deklarazio honek arbuia garritzat jotzen ditu hizkuntz komunitateen aurkako diskriminazio guztiak, hala haien subiranotasun politikoan, haien egoera sozial edo ekonomikoan bezalako irizpideetan oinarritutakoak nola hizkuntza horiek lortu duten kodetze, eguneratze edo modernizatzeko mailan aitzakia hartutakoak .

3. Berdintasun-printzipioa aplikatuz berdintasun hori efektiboa izan dadin ezinbesteko neurriak hartu beharko dira.

#### **11. artikulua**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka Deklarazio honetan jasotako eskubideen egikaritzea bermatzen duten zuzeneko edo alderantzizko itzulpenarako baliabide guztiak eskura izateko.

#### **12. artikulua**

1. Gizaki orok eskubidea dauka alor publikoko jarduerak guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bere bizi den lurraldeko hizkuntza propioa bada.

2. Gizaki orok eskubidea dauka alor pertsonal eta familiarako bere hizkuntza erabiltzeko.

#### **13. artikulua**

1. Gizaki orok eskubidea dauka bizi den lurraldeko hizkuntza propioa ikasteko.

2. Gizaki orok eskubidea dauka eleaniztun izateko eta bere garapen edo mugikortasun sozialerako lagungarrien iruditzen zaion hizkuntza ikasteko, galarazi gabe Deklarazio honetan, lurraldeko hizkuntza propioaren erabilera publikoa bermatzeko ezartzen diren garantiak.

#### **14. artikulua**

Deklarazio honetako xedapenak ezin dira interpretatu edo erabili, estatu barruko nahiz nazioarteko erregimeneko edozein arau edo praktikak hizkuntza bat bere lurraldean erabiltzeko ezarritako tratu faboragarriagoren aurka.

### **BIGARREN TITULUA**

#### **Hizkuntza eraentza orokorra**

##### **I. atala: Administrazio publikoa eta organo ofizialak**

#### **15. artikulua**

1. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntza ofizialtzat erabilia izan dadin bere lurraldearen barruan.

2. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka jarduketa judizial eta administratiboak, dokumentu publiko eta pribatuak eta erregistro publikoetan egindako inskripzioak lurraldeko hizkuntza propioan egiten direlarik baliozkoak eta eraginkorrak izan daitezen, eta inork alega ahal izan ez dezan hizkuntza hori ez dakiena.

#### **16. artikulua**

Hizkuntz komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan erlazionatzeko eta harrera izateko hizkuntza hori propiotzat duen lurraldea bere baitan duen botere publikoen eta administrazio-dibisioen zerbitzuen aldetik, zentralak, lurraldekoak, tokikoak hala lurraldez gaindikoak izan.

#### **17. artikulua**

1. Hizkuntz komunitate orok eskubide dauka eskura izateko eta eskuratzeko bere hizkuntza propioan, hizkuntza hori nongoa den eta bertako lurraldeari dagozkion harremanetarako dokumentazio ofizial, paperean, euskarri informatikoan edo beste edozeinetan.

2. Botere publikoek eskura izan behar dituzte, eta jendeari eskaini, lurralde-hizkuntza bakoitzaren lurraldeei dagozkien zerbitzuetan, delako hizkuntzan idatziriko formularioak, inprimakiak eta ereduak, paperean, euskarri informatikoan edo beste edozeinetan.

#### **18. artikulua**

1. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka berari dagozkion legeak eta gainerako arau juridikoak lurraldearen hizkuntza propioan argitara daitezen.

2. Botere publikoek, bere jarduketa-eremuaren barruan, territorialki historikoa den hizkuntza bat baino gehiago dutenean, hizkuntz horietan argitaratu behar dituzte legeak eta gainerako arau juridikoak, kontuan hartu gabe haien hiztunek beste hizkuntzak ulertzen dituztenentz.

#### **19. artikulua**

1. Ordezkarien batzarrek ofizialtzat hartu behar dituzte ordezkari diren lurraldeetan historian zehar hitz egindako hizkuntza edo hizkuntzak.

2. Asentamendu barreiatutako komunitateen, –1. artikuluko 4. paragrafoan erreferentzia dutenen–, hizkuntzei ere aplikatzen zaie eskubide hau.

#### **20. artikulua**

1. Gizaki orok eskubidea dauka ahoz eta idatziz erabiltzeko justizia-auzitegien aurrean, horiek kokatuta dauden lurraldean historian zehar hitz egindako hizkuntza. Auzitegiek lurraldeko hizkuntza propioa erabili behar dute bere barne-jarduketetan eta, estatuaren antolaketa judiziala dela eta, prozesuak hasierako lurraldetik kanpo jarraitu balu, hasierako hizkuntzari eutsi beharko litzaioke.

2. Edozein kasutan ere, gizaki orok eskubidea dauka ulertzen duen eta hitz egin dezakeen hizkuntza batean juzkatua izateko, edo interpretari bat dohain eskuratzeko.

#### **21. artikulua**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka erregistro publikoetako idazpenak lurraldeko hizkuntza propioan egin daitezen.

#### **22. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka notarioek edo fede publikoa duten funtzionarioek, baimendutako dokumentuak idatziak izan daitezzen notarioak edo fede publikoa duen funtzionarioak bere egoitza kokatu duen lurraldeko hizkuntza propioan.*

## **II. atala: Hezkuntza**

### **23. artikulua**

*1. Hezkuntzak lagundu egin behar du, ematen den lurraldeko hizkuntz komunitatearen autoadierazpen linguistiko eta kulturalaren gaitasuna indartzen.*

*2. Hezkuntzak lagundu egin behar dio ematen den lurraldeko hizkuntz komunitateak hitz egiten duen mintzairaren euste eta garapenari.*

*3. Hezkuntza beti ere hizkuntz eta kultur dibertsitatearen zerbitzura egongo da eta baita, mundua zeharreko hizkuntz komunitate desberdinen arteko harreman harmoniatsuen alde ere.*

*4. Aurreko printzipioen argitan, gizaki orok dauka edozein hizkuntza ikasteko eskubidea.*

### **24. artikulua**

*Hizkuntza komunitate orok eskubidea dauka erabakitzeko zein izango den bere hizkuntzak, hala hezkuntzaren hizkuntza gisa nola irakaskuntzaren gai gisa, izango duen presentzia bere lurraldeko maila guztietako hezkuntzan: eskolaurrean, oinarrizkoan, bigarreanean, tekniko eta profesionalean, unibertsitatekoan eta helduen hezkuntzan.*

### **25. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka eskura izateko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak bere lurraldearen barruko irakaskuntzaren maila guztietan, bere hizkuntzak nahi duen presentzia-maila lor dezan: modu egokian hezitako irakasleak, metodo pedagogiko egokiak, eskuliburuak, diru iturriak, lokalak eta ekipamenduak, baliabide teknologiko tradizionalak zein berritzaileak.*

### **26. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka halako hezkuntzaz gozatzeko non bere kide guztiei bide emango zaien bere hizkuntza propioa erabat menderatzeko, ohiko erabilera-eremu guztiei dagozkien gaitasun guztiekin eta baita ikasi nahi dezaketen beste edozein hizkuntzaren jabetzarik osoena ere.*

### **27. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka halako hezkuntza izateko non bide emango zaien bere kide guztiei tradizio kultural propioarekin loturiko hizkuntza guztiak ikasteko, esate baterako kulturazko zein erlijiozko hizkuntzak, antzina, komunitate horren eguneroko hizkuntza gisa erabiliak izan direnak.*

### **28. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka halako hezkuntza izateko non bide emango zaien bere kide guztiei bere kultur ondarearen (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenak) ezagutza sakonaz jabetzeko eta, halaber, ezagutu nahi luketen beste edozein kulturaren ahalik eta menderapen hobereana lortzeko.*

### **29. artikulua**

- 1. Gizaki orok eskubidea dauka hezkuntza jasotzeko bera bizi den lurraldeko hizkuntza propioan.*
- 2. Eskubide honek ez du alboratzen eskubidea beste hizkuntz komunitateekin komunikatzeko tresnatzat erabil daitekeen beste edozein hizkuntzaren ezagutza, hala ahozkoa nola idatzizkoa, bereganatzeko.*

### **30. artikulua**

*Hizkuntza komunitate bakoitzaren hizkuntza et kultura, unibertsitate mailako ikaskuntza eta ikerkuntzaren gai izango dira.*

## **III. atala: Onomastika**

### **31. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka esparru eta egokiera guztietan bere sistema onomastikoari eusteko eta erabiltzeko.*

### **32. artikulua**

- 1. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzaz erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatu, publiko eta ofizialetan.*
- 2. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka toki-izen autoktonoak finkatzeko, gordetzeko eta berrikusteko. Toki-izen horiek ezingo dira arbitrarioki ezabatu, ez aldatu ez eta egokitu; era berean, ezin izango dira ordeztu gorabehera politikoen edo bestelako aldaketan karian.*

### **33. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere burua hizkuntza propioan izendatzeko. Hortaz, beste hizkuntzetara egindako itzulpena egiterakoan, izendapen nahasgarri zein erdeinuzkook baztertu egingo dira.*

### **34. artikulua**

*Gizaki orok eskubidea dauka bere antroponimia erabiltzeko eremu guztietan berea duen hizkuntzan eta beste sistema grafikora, behar denean soilik, ahalik et modu fonetikorik fidelenean transkribatua izan dadin.*

## **IV. atala: Komunikabideak eta teknologia berriak**

### **35. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka erabakitzeke zein mailatako presentzia izan behar duen bere hizkuntzak bere lurraldeko komunikabideetan, hala tokikoak eta tradizionalak nola irismen handiago et teknologia aurreratuagokoetan, erabiltzen den hedapen edo igorpen-sistemari begiratu gabe.*

### **36. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko ziurtatu ahal izateko bere hizkuntzaren eta kultur autoadierazpen presentzia non adinekoa izan dadin bere lurraldeko komunikabideetan: modu egokian hezitako giza baliabideak diru-iturriak, totalak eta ekipamendu, baliabide teknologiko ohiko zein berritzaileak.*

### **37. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka komunikabideen bidez bere kultur ondarearen (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenok) ezagutza sakonez jabetzeko eta, halaber, ezagutu nahi luketen beste edozein kulturaren ahalik eta menderapen hobereana lortzeko.*

### **38. artikulua**

*Hizkuntz komunitateen hizkuntza eta kultura guztiek tratu ekitatibo ez baztertzaila jaso behar dute mundu osoko komunikabideen edukietan.*

### **39. artikulua**

*Deklarazio honetako 1. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan deskribatutako komunitateek eta baita artikuluko bereko 5. paragrafoan azaltzen diren taldeek ere, eskubidea dute egoitza non finkatu edo lekualdatzen diren lurraldeko komunikabideetan, bere hizkuntzok errepresentazio orekatua izan dezan. Eskubide honen egikaritzea harmonizatu egin beharko da lurraldeko beste talde edota komunitateen eskubideen egikaritzarekin.*

#### **40. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka eskura edukitzeko bere hizkuntz sistemari egokitutako informatika-ekipamenduak eta bere hizkuntzako tresneria eta produktuak, teknologia horiek eskaintzen duten ahalmen guztien onura atera ahal izateko, bai autoadierazpenari, hezkuntzari, argitarapenari edo itzulpenari dagokionez eta baita, oro har, informazioaren tratamenduari eta kultur hedapenari dagokionez ere.*

### **V. atala: Kultura**

#### **41. artikulua**

*1. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntza kultur adierazpen guztietan erabiltzeko, sostengatzeko eta bultzatzeko.*

*2. Eskubide honen egikaritzak erabateko gauzatze-bidea izango du, inongo komunitatearen espazioak atzerritar kultura baten okupazio hegemonikoa jasan beharrik izan gabe.*

#### **42. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere kultur mundu propioan erabat garatzeko.*

#### **43. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntzan egindako lan guztietara iristeko.*

#### **44. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka kultura arteko programetara iristeko, behar adinako informazio-hedapenaren bidez eta, halaber, sostengua eman dakien atzerritarren hizkuntz ikasketa, itzulpena, bikoizketa, postsinkronizazioa, azpitolugintza eta antzeko ekintzei.*

#### **45. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka lurraldeko hizkuntza propioak toki nagusia har dezan kultur gertakarietan eta zerbitzuetan, hala nola liburutegiak, bideotekak, zinemak, teatroak, museoak, artxiboak, informatika-ekoizpena, folklorea, kulturaren industriak eta kultur bizitzatik eratorritako beste gertakari guztiak.*

#### **46. artikulua**

*Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere ondare linguistiko eta kulturala zaintzeko, barnean izanik haien adierazpen materialak, hala nola dokumentu-fondoak, arte eta arkitektura-lanak, monumentu historikoak eta bere hizkuntzaren agerpen epigrafikoak.*

### **VI. atala: Alor sozioekonomikoa**

#### **47. artikulua**

*1 Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntzaren erabilera xedatzeko bere lurraldearen barruko jarduera sozioekonomiko guztietan.*

*2. Hizkuntz komunitate bateko edozein kidek eskubidea dauka bere hizkuntzan eskura izateko lanbide-jarduera egikaritzeko baliabide guztiak, hala nola kontsultarako dokumentuak eta liburuak, jarraibideak, formularioak eta informatikazko ekipamenduak, tresnak eta produktuak.*

*3. Alor sozioekonomikoan beste hizkuntzen erabilera justifika dezaken arrazoi bakarra, egiten ari den lanbide-jardueraren izaera izango da. Inolaz ere ez daiteke onar berriki etorria den hizkuntza lurraldekoa berezkoa den hizkuntza ezkatutzea edo erabilera menperatzea.*

#### **48. artikulua**

*1 Norbere hizkuntz komunitatearen lurraldearen gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntza balio juridiko osoz erabiltzeko era guztietako merkataritza-jardunetan, hala nola ondasun eta zerbitzuen salerosketetan, banku-eragiketetan, aseguruetan, lan-kontratuetan eta gainerakoetan.*

*2. Ekintza pribatu horietako ezein klausulak ezin du baztertu edo mugatu lurraldeko hizkuntza propioaren erabilera.*

*3. Gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntz komunitatearen lurraldean bere hizkuntza eskura izateko aipatutako eragileak burutzeko behar diren agiriak, hala nola inprimakiak, txekeak, kontratuen fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak, eskaerak eta gainerakoak.*

#### **49. artikulua**

*Gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntz komunitatearen lurraldean bere hizkuntza erabiltzeko edozein motatako erakunde sozioekonomikoetan, hala nola laboralak, sindikalak, patronalak, lanbidekoak eta gremiokoak.*

#### **50. artikulua**

*1. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntzak presentzia nagusia izan dezan publizitatean, errotulazioan, kanpo-seinaleztapenetan eta lurraldearen irudi orokorrean.*

*2.- Hizkuntz komunitate propioaren lurraldeen gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntzan informazio osoa izateko idatzia zein ahozkoa, lurraldean finkatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuez, hala nola erabiltze-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak.*

*3. Pertsonen segurtasunari dagozkion argibide publiko guztiak gutxienez hizkuntz komunitatearen hizkuntzan adieraziko dira, beste edozein hizkuntzatako adierazpenak baino kondizio ez okerragotan.*

#### **51. artikulua**

*1. Gizaki orok eskubidea dauka lurraldeko hizkuntza propioa erabiltzeko enpresekin, merkataritza-establezimenduekin eta erakunde pribatuekin dauzkan harremanetan eta hizkuntza berean atenditua eta erantzuna izateko.*

*2. Gizaki orok eskubidea dauka, bezero, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, jendeari zabaldutako establezimenduetan lurraldeko hizkuntza propioan informatuta izateko, nola ahoz nahiz idatziz.*

#### **52. artikulua**

*Gizaki orok eskubidea dauka jarduera laboralak eta lanbideak lurraldeko hizkuntza propioan egiteko, salbuetsiz lanpostuari dagozkion funtzioek beste hizkuntzen erabilera eskatzen duten kasuak, halakoak baitira hizkuntz irakasleak, itzultzaileak, turismo-gidariak.*

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### **Lehena**

*Botere publikoek Deklarazio honetan aldarrikatutako eskubideak aplikatzeko neurri egoki guztiak hartu beharko dituzte, zeinek bere jardute-alorrean. Zehazkiago, nazioarteko fondoak eskura jarri beharko dira, nabarmenki baliabide eskasian dauden komunitateen Hizkuntz Eskubideen egikaritzea sostengatzeko. Era berean, botere publikoek behar den sostengu guztia eman beharko dute hainbat komunitateren hizkuntzak kodetzeko, transkribatzeko, irakasteko eta administrazioan erabiltzeko.*

#### **Bigarrena**

*Botere publikoek zainduko dute Deklarazio honen arabera dagokien agintariak, erakundeak eta pertsonak bertatik jorratzen diren eskubideen eta betebeharrak korrelatiboen informazioa jaso dezaten.*

#### **Hirugarrena**

*Botere publikoek aurreikusi beharko dituzte, indarrean den legerien arabera, Deklarazio honetako hizkuntz eskubideak urratzearen ondoriozko zehazpenak.*

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Lehena**

*Deklarazio honek proposatzen du Hizkuntzen Kontseilua sortzea Nazio Batuen baitan. Nazio Batuen Batzar Orokorrari dagokio Kontseilu hori sortzea, bere eskumenak zehaztea, bertoko kideak izendatzea eta Deklarazio honetan errekonozitutako eskubideak egikaritzekoan hizkuntz komunitateak babestuko dituen nazioarteko zuzenbideko erakundea xedatzea.*

#### **Bigarrena**

*Deklarazio honek gomendatzen du eta sustatzen du Hizkuntz Eskubideen Munduko Batzordea sortzea, zeina izango baita ez ofiziala, izaera kontsultiboa eta Gobernu Kanpoko ERakundez eta hizkuntz eskubidearen alorreko erakundez osatua.”*

### **3.-Euskal Herriko Hizkuntz Eskubideen Kartaren onarpena.**

Jose Maria Sarasola alkate jaunak gaurko Osoko Bilkurara gonbidatua izan den Udalbiltzako Euskara Saileko arduraduna den Lander Etxebarriari eman dio hitza, eurek osatutako kartaren aurkezpena egin dezan.

Udalbiltzako Euskara saileko arduraduna den Lander Etxebarriak hartu du hitza eta zera esan du:

*“Karta hau egiteko orduan Udalbiltzaren asmoa zen hizkuntz eskubideetaz ardiratzea baina Legeetan edo Konstituzioan ezarritako mugetatik haratago joanez. Hizkuntz eskubide hauek Kartan isladatu dira ez bakarrik gizabanakoen eskubide bezala baizik eta Herrien eskubide bezala ere.*

*Karta hau Nazioartetik atera da, Nazioarteko Zuzenbidean dauden zuzenbide eta eskubideak aztertu dira eta beste herri batzuen egoerak eta errealitateak ikusi dira. Ondoren Euskal Herriak berak Frantsez eta Gazteleraren aurrean duen errealitate aztertu da. Guzti honen islada izan nahi izan du Karta honek eta ahalik jende, herri eta talde gehienei jakinarazteko asmoa daukagu. Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiot Anoetako Udalari eta Mikel Errazkin zinegotziari Kartaren onarpenagatik eta horretarako eginiko lanagatik, Anoeta izan baita aitzindari”*

*Jarraian Mikel Errazkin jaunak hartu du hitza eta azaldu du Udalbiltzak elaboratutako karta hau onartzeko, Anoetako Euskara Batzordean mozio bat prestatu dutela eta horren azalpena egin du.*

*EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Mikel Zubillaga jaunak euren alderdian mozio hauek aztertu ondoren, gaurko mozio guztiak ahobatez onartzeko asmoa dutela esan dio Mikel Errazkin zinegotziari.*

Ikusirik Udalbiltzak osatutako “Euskal Herriaren Hizkuntz Eskubideen Karta” onartzeko, Anoetako Euskara Batzordeak aurkezturiko mozioa.

### **Erabakia:**

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute Anoetako Euskara Batzordeak aurkezturiko hurrengo mozioa:

### **“HIZKUNTZ ESKUBIDEEN KARTA ONARTZEKO MOZIOA**

*Euskara Anoetako hizkuntza eta Euskal Herriaren nazio hizkuntza da, munduaren aurrean gure herria herri edo nazio egiten duen ardatz nagusienetarikoa. Euskara, aldi berean, Udalherri honetako eta Euskal Herriko ondare zein gizadi osoarena ere bada, izan ere, Europan gaur erabiltzen diren hizkuntzak ezagutu ere egiten ez zirenean, euskara bizirik zegoen.*

*Alabaina, Anoetako euskaldunen kopurua herritarren %80 izanik, euskara hizkuntza gutxitua da gure udalerrian, bai juridikoki bai gizarte erabilerari dagokionez, Euskal Herrian oro har gutxitua den bezalaxe. Izan ere, euskaldunen kalterako desoreka soziolinguistikoa, euskara balio handieneko funtzio sozialetatik legez edo erabileraz baztertuta egotea eta juridikoki erdarak baino balio gutxiago izatea ez da euskal gizartearen borondatearen emaitza. Egoera hori, mendeetan zehar gure herriaren gaineko botere politikoa izan duten estatuak eragindako bazterketa eta eraso politikaren ondorioa da.*

*Azken hamarkadetan, euskal gizartearen presioari esker, zenbait aldaketa juridiko lortu dira euskararen egoera hobetu dutenak. Udalak ere, azken urteotan hainbat neurri hartu izan ditu (Udalaren Erabilera Plana onartu, Tolosaldeko Euskararen Plan Estrategikoarekin bat egin...) herritarren eskubideak eta euskararen erabilera sustatzeko xedetan. Halere, neurri horiek guztiak ez dute, oraindik ere, herritarrek euskaraz bizitzeko, euskara berreskuratzeko eta euskararen erabilera gizartearen funtzio eta maila guztietara orokortu dadin duten eskubidea bermatzen.*

*Egoera honen aurrean, Udalbiltzak, euskal herritarren hizkuntz eskubide guztiak bermatzeko xedetan, jauzi juridiko berriak ematearen beharra azpimarratu du eta euskarari herritarren eskubideen arabeko estatus juridikoa emateko urrats praktikoak eman ere. 2002ko azaroaren 23an Udalbiltzak Tolosan egin zuen Batzar Orokorrean, Euskal Herriaren Eskubideen Karta onartu zuen. Euskal Herriko gizarte eragile nagusien eta herritarren parte hartzea bideratuz osatutako agiri horren bitartez, Udalbiltzak euskal herritarrek ukatuta edota urratuta dituzten eskubideen aitortza egiten du. Hala, hizkuntzaren arloan, zera aitortzen du, besteak beste:*

*Euskal Herriko herritar guztiek, hala nola geroko belaunaldiek, euskaraz bizitzeko eta garatzeko eskubidea daukate, inolako murrizketarik gabe.*

*Euskarak, Euskal Herriko berezko hizkuntzak, jazarpen eta gutxiagotze prozesua jasan du aspalditik. Baita gaur egun ere. Bidegabekeria honek kalte-ordaina behar du. Horretarako, premiazko diren zuzenbide, ekonomia eta gizarte-baliabide guztiak eratu eta kudeatu beharko dira.*

*Euskal Herriak eskubidea du herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko behar den hizkuntz politika finkatzeko, hizkuntz politika nazionala eta burujabea, euskara berreskuratzeko eta euskararen gizarte-funtzio guztiak bermatu ahal izateko behar diren tresna juridikoak sortuko dituen eta nazio hizkuntza izaerari dagozkion ofizialtasuna eta lehentasuna emango diona.*

*Aldi berean, Udalbiltzak Euskal Herriaren Hizkuntz Eskubideen Karta ere onartu du, hizkuntz eskubideen oinarritzko aitortza hori garatu eta zehaztuz, beti ere helburu bikoitz batekin: alde batetik, bere eskubideen ukazioa edo urraketa pairatzen duen euskal gizarteak, egoera hori normalizat hartu ordez, dagozkion eskubideekiko duen jabetza maila haratago eramatera laguntzeko, alegia, herritarrek eurei dagozkien eskubideekiko eskakizun maila areago dezaten sustatzeko; bestetik, euskal herritarren eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurrien formulazioa egin nahi da, horien aldeko aldaketa juridikoak sustatzeko.*

*Herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko euskarak estatus juridiko egokia behar duela jabeturik, Anoetako Udalak orain arte hartutako neurriak hobetzarren eta Udalbiltzak, Euskal Herriko nazio mailako instituzioa izanik, euskararen estatusari buruz aldarrikatutako neurriak ikusita, Anoetako Udalak honako akordio hauek hartzen ditu:*

***1.- Euskal Herriaren gaineko hizkuntz politika finkatzea Euskal Herriari soilik dagokiola eta hizkuntz politika honako printzipio hauetan oinarritu behar dela aldarrikatzea:***

- a) Euskararentzako berdintasun eta ofizialtasun osoko estatusaren aitortza.***
- b) Euskararen berreskurapena eta hizkuntz komunitatea berrosatzea.***
- c) Herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidearen bermea.***
- d) Euskarari, nazio hizkuntza gisako lehentasuna ematearena.***

***2.- Udalbiltzak 2002ko azaroaren 23an Tolosan onartutako Euskal Herriaren Hizkuntz Eskubideen Karta bere egitea.***

***3.- Udalerri honetako herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeari begira, Udalaren araudia aztertu eta aldarrikatutako neurriei egokitzeko behar diren aldaketak onartzea***

***4.- Azterketa hori Euskara Batzordearen baitan egingo da. Hartara, Batzordeak berariazko lan egutegia eta herritarren parte hartzea bermatzeko metodologia finkatuko du, Udalbatzari behar diren neurriak aurkeztuaz.***

***5.- Akordio honen berri Udalerri honetako herritarrei eta gizarte eragileei ematea ahalik eta hedapen handienarekin.”***

## **ERANSKINA**

*“Euskal Herriaren Hizkuntz Eskubideen Karta*

*UDALBILTZA*

*(Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra)*

***Euskal Herria***

***2002ko azaroa***

### **HITZAURREA**

*Udalbiltzak, bere sorreran hartutako konpromisoari eutsiz, Donostiako Kursaal Jauregian 2001eko otsailaren 24an egin zuen Batzar Orokorrean euskararen egoerari buruzko oinarritzko diagnostikoaren laburpena aurkeztu zuenean, euskararen egoera larria eta, aldi berean, bere aldeko faktoreak baieztatzeaz gain, honako hau baieztatu zuen:*

*“Euskal herritarrek pairatzen duten egoera linguistikoaren oinarrian dagoen arazoa, gure hizkuntzak lurralde osoan duen ofizialtasun eza da. Euskal Herrian egungo marko juridiko politikoaren ondorioz, bost egoera desberdin ditugu eta honekin batera inposatuak diren hizkuntzekiko menpekotasuna errealitate objektiboa da. Herritarren hizkuntz eskubideak ez dira bermatuak beraz, eta aipatu asimetria legalak ondorio larriak ditu gure hizkuntzaren garapenerako eta hizkuntza gisa bete behar dituen funtzio sozialak bermatzeko.”*

*Baieztapen horretatik abiatuta, Udalbiltzak, 2001eko abenduaren 15ean Miarritzen egin zuen III. Batzar Orokorrean, nazio instituzio den heinean, Euskal Herritarren eskubideak aitortu, aldarrikatu eta gauzatzeko bidea egitera zuzendutako ekimen bat bultzatzeko konpromisoa hartu zuen: Euskal Herriaren Eskubideen Karta.*

*Gure herriaren hizkuntza nazionalaren egoera juridikoaren ebaluazio zehatzagoa egiteko, nazioartean hizkuntz eskubideen gaiari ematen zaion tratamendua zehazki ezagutzea lagungarri izango denaren segurtasunean, Udalbiltzak nazioarteko zuzenbidean hizkuntz eskubideei buruz jasotako araudia aztertu du. Azpimarragarria da nazioartean hizkuntzen arteko elkarbizitza baketsua eta ekitatiboa bermatzeko 1996ko ekainaren 6tik 9ra bitartean Bartzelonan onartu zen Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Halaber, nazioartean hizkuntz eskubideak babesteko hainbat herrik ezarritako hizkuntz politikak aztertu ditu.*

*Herri horietan indarrean dauden hizkuntz politikak aztertu ondoren nabarmenagoa egiten da Euskal Herrian hizkuntz politika berri bat behar dela euskal herritarren eta Euskal Herriaren beraren hizkuntz eskubideak babesteko, euskararekiko dituzten eskubideak bermatzeko.*

*Udalbiltzak, Euskal Herriko instituzio nazional bakarra den heinean, gure herriak duen gabezi horri irtenbidea emateko lehentasunaz jabeturik, hizkuntz politika berri bat sustatu nahi du, Euskal Herriak burujabeki finkatuko duena eta, lurralde eremu desberdinek eskatzen duten modulazioaren kaltetan gabe, Euskal Herri osoa bere baitan hartuko duena, zatiketa administratibo eta politikoak gaindituz; euskal herritarren eta Euskal Herriaren hizkuntz eskubideak bermatzeko dituen hizkuntz politika eta Euskal Herrian hizkuntzen arteko elkarbizitza ahalbidetuko duena, egun euskararekiko erasokorra den eraentzaren ordeztuz, euskararen iraupena eta garapen osoa ahalbidetuko duen beste eraentza bat ezarriz. Horretarako ezinbestekoa da eskubideok zeintzuk diren argitzea eta berauek bermatzeko behar diren neurriak formulatzea eta, aldi berean, euskal gizarteak bere hizkuntz eskubideekiko eskakizun maila areagotzea.*

*Helburu bikoitz horrekiko ildoan txertatzen da Euskal Herriaren Hizkuntz Eskubideen Karta. Udalbiltzak, Kartaren bitartez, euskal herritarrek euren hizkuntz eskubideekiko duten jabetza maila haratago eramatera lagundu nahi duen tresna baliagarria eskaini nahi dio euskal gizarteari eta, aldi berean, eskubideok bermatzeko behar den hizkuntz politika ezartzeko erreferente argi bat eraiki.*

*Hizkuntz Eskubideen Kartak, lehen idazpuruan, Euskal Herriaren hizkuntz eskubideak babestu eta bermatzeko behar den hizkuntz politikaren funts juridiko eta politikoak jasotzen dira, nazioarteko zuzenbidean eta hainbat herriren hizkuntz politikan babesa jasotzen dutenak.*

*Bigarren idazpuruan, Euskal Herriak behar duen hizkuntz politikaren oinarri nagusien aldarrikapena egiten da. Printzipio horiek, ezinbestean honako hauek dira: berdintasuna, euskararen berreskurapena, euskararen nazio hizkuntzaren izaeraren babesa, norbanakoen eskubideen bermea eta burujabetasuna hizkuntz politika finkatzeko.*

*Hirugarren idazpuruan, Udalbiltzak euskal herritarrei aitortu behar zaizkien hizkuntz eskubideak aitortu eta aldarrikatzen ditu. Lehendabizi, eskubide orokorren aitortzea egiten da eta, ondoren, atalez atal herritarrek dituzten eskubideen aldarrikapena, hala nola, administrazio publikoa eta organo ofizialen aurrean, hezkuntzan, alor sozioekonomikoan eta kultura eta komunikabideetan. Laburbilduz, euskara bizitzaren eremu guztietan erabili eta garatzeko eta euskara etorkizun osasuntsudun hizkuntza izateko eskubidearen zehaztasuna osatzen du aitortpenaren idazpuru honek.*

*Laugarren idazpuruan, azkenik, eskubideok bermatzeko behar diren lege indarreko neurriak jasotzen dira. Herritarren eskubideak ez dira aldarrikapen hutsaz bermatzen, eskubideak bermatzeko betebeharrak ere finkatu egin behar dira, txanpon beraren alde biak baitira. Horrenbestez, euskal herritarren hizkuntz eskubideen gauzapan eta bermerako, Euskal Herri osorako legeria, araudia eta plangintza ezarri behar dira, lurraldearen eremu desberdinei dagozkien helburu mailakatuak finkatuz.*

*Neurri oinarrizkoena euskara hizkuntza ofizial, nazional eta lehentasunezko izendatzea da. Ondoren, izaera honen benetako garapenerako eta gure herriko hizkuntzak, euskarak, bizi duen egoera zuzentzeko beharrezko politikaren hiru ardatzak garatzen dira, hainbat herritan, euren nazio hizkuntza gutxituak babesteko garatu dituztenak, hain zuzen ere:*

- Euskara administrazio eta zerbitzu publikoen hizkuntza izatearena.*
- Hezkuntzaren bidez euskararen transmisioa ziurtatzearena, oreka soziolinguistikoa berreskuratzeko ezinbestekoa.*
- Sektore pribatuak herritarrekiko duen harremanetan euskararen erabilera ziurtatzearena, gutxienez berdintasun irizpidearekin.*

*Ardatz hauen garapenean datza munduko herrialdetan hizkuntzen benetako ofizialtasuna. Beraz, Euskal Herrian euskarak benetako ofizialtasuna erdietsiko badu, ezinbestekoa da hiru zutabeotan oinarritzea hizkuntz politika. Horretarako, euskal herritarrei euskal herri osoan oinarrizko hizkuntz eskubideak bermatzeko, herri aginteei eta horretarako ahalmena dutenei eskatu behar zaizkien betebeharrak zehazten dira, batik bat herritarren erabilera publikoa eremu guztietan bermatzeko eta Euskal Herriaren oreka soziolinguistikoa inoiz berreskuratu dadin.*

*Aldi berean, herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko alor pribatuak zaindu behar dituen baldintza minimoak ere jasotzen dira. Arlo honi begira lege mailako hainbat neurri zehaztea, arlo publikoari dagokionez bezala, beharrezkoa suertatzen da. Alde batetik, hizkuntz eskubideen bermatzeak, arestian esan bezala, zaindu beharreko betebeharrak erantzukizunak finkatzeko. Bestetik, lege indarreko neurriek babesa emango dietelako arlo pribatuan eskubideok bermatzeko aurrerapausoak emateko prest dauden enpresei. Horrelako babesa behar beharrezkoa da gaur egun, hizkuntz eskubideekiko babesa eskaintzeko borondatea daukaten enpresei merkatuan berdintasunez lehiatzeko aukera ziurtatzeko, oraindik ere, batzuek euskara erabiltzea beste batzuek arma erasokor bezala erabiltzen baitute, zilegitasunik gabekoa izan arren.*

*Horrez gain, euskal lurraldean euskararen egoera toki guztietan berdina ez denez, euskararen erabilera babesteko neurri bereziak jasotzen dira euskaldun kopuruak maila nahikoa duen eremuetarako. Horrela, lurraldetasun irizpide leundu baina goranzkoaren arabera, euskaldunak herritarrek biztanleen %25etik %50era diren edo 1000 biztanle baino gehiago duten udalerriak lehen mugarria osatzen dute; bigarrena euskaldunak biztanleek %50etik %70era diren udalerriak; azkenik, euskararen erabilera oraindik nagusi den lurraldeko udalerriak daude. Neurri berezi hauen helburua euskararen erabilerak aurkitzen dituen oztopoak desagerraraztea da.*

*Legearen idazpuru honetan euskarari buruzko neurriak eta euskararen estatusa baino ez bada jasotzen, egun ekimen arautzaileak duen defizita euskararekiko delako da.*

*Udalbiltzak lege indarreko neurri hauek sustatzeko konpromisoa hartzen du, hala neurri horien udal mailako akordioak eta ordenantzak sustatuz nola beste mailako erakundeen aurreko ekimenaren bidez. Zentzu horretan, Udalbiltzak dei egiten, jadanik, Euskal Herrian eragina duten instituzio guztiei*

*hemen jasotzen diren neurriak eraginkorrak izan daitezzen ahalik eta azkarren behar diren neurriak har ditzaten.*

*Horrenbestez, Udalbiltzak, 1996ko ekainaren 6tik eta 9ra bitartean Bartzelonan onarturiko Hizkuntz Eskubideen Deklarazioa Unibertsala bere eginez eta, euskal gizarte eragileen aldarrikapena jasoz, Euskal Herrian herritarren hizkuntz eskubideak babesteko behar den hizkuntz politika berria finkatzearen alde, ondoren zehazten diren printzipio nagusiak aldarrikatzen ditu, horien arabera eskubideak aitortzen dizkie herritarrei eta zehazten diren lege indarreko neurriak bere egiten ditu:*

## **I. IDAZPURUA**

### ***EUSKAL HERRITARREN HIZKUNTZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO HIZKUNTZ POLITIKAREN OINARRIAK***

*Euskal Herria aintzatespen juridikorik ez duen errealitate historiko-soziopolitiko dugu gaur egun. Edozein autodeterminazio prozesuk bere garapen prozesuak eskatzen dituen autodefinizio eta autoafirmazio garbia egina duen herria da gurea. Euskal Herriak, oinarri objektiboei begiratuz gero, herri bat osatzen duela ezin uka daiteke.*

*Oinarri objektibo horien **ardatz nagusia**, euskal herria herri egiten duena, euskararen herria egiten duena, **euskara** dela, historikoki herri honetako biztanleek ez ezik nazioarteak ere onarturiko errealitate ukazina da. Euskara, gainera, Europako hizkuntzarik zaharrena izateaz gain, Euskal Herriko berezko hizkuntza da.*

*Oinarri objektiboez gaindi, herri honek herri izateko borondate garbia historikoki agerturiko errealitatea da ere eta prozesu horretan bere autodefinizioa aspaldi emaniko herria dugu: zazpiak bat eta euskara batuaren prozesua genituzke horren adibiderik garbienak. Halere, esan bezala, Euskal Herria ez da errealitate juridiko gisa existitzen. Errealitate soziopolitiko honek ez du isla juridikorik eta, beraz, isla erreal bakar gisa, marko juridiko espainiar eta frantsesaren menpe dira bertoko biztanleak eta beraien eskubideak. Ordenamendu juridikoak baitira, izan ere, eskubideak aintzatesten dituztenak.*

*Hori dela eta, euskal herritarren hizkuntz eskubideei buruz hitz egitean gaur egun espainiar zein frantziar estatuetako ordenamendu juridikoez hitz egin behar da, bai eta hauek onarturiko nazioarteko legediaz ere; baina, beti ere, nazioarteko legedi hau euskal herrian indarrean egoteko, gaur egun, espainiar zein frantziar estatuak sinatu eta berretsitako araudia izan behar duela ahaztu gabe.*

*Erdi arotik aurrera, euskaldunen gaineko botere politikoa eragiten duten estatuak euskararekiko bazterketa edo eraso politika ezarri izan dute. Nafarroako Erresumak berak, euskara erabat baztertu zuen erabilera ofizialetik, nekazarien hizkuntzaren tratamendua emanaz; bere politikan latinari edo nafar erromantzeari, eta gero gaztelania edo frantsesari eman zion lehentasuna, baita hizkuntza hauen ezagutzaren beharra xedatu ere erresumako Gorte nagusietan parte hartzeko ezinbesteko baldintza moduan.*

*Euskal lurraldea Nafarroako Erresuma izatetik beste herri batzuek osatutako estatuen lurraldea izatera pasatzen den neurrian (Gaztela, Frantzia, Espainia), euskararekiko jarrera gogortu egingo da, frantsesa eta gaztelania estatuko hizkuntza, hezkuntzako hizkuntza eta, azken finean, bakoitza bere estatuen mugen barruan hizkuntza eremu publikoetan hizkuntza baliagarri bakartzat inposatuz, baita euskara erabiltzea debekatuz ere.*

*Azken hamarkadetan, euskal gizartearen presioari esker, zenbait aldaketa juridiko lortu dira euskararen egoera hobetu dutenak. Halere egungo egoera juridikoari so egiten badiogu, begibistakoa da euskarak duen statusak ez dituela bermatzen euskal herritarren eskubideak, ez gizabanakoenak, ezta hizkuntz komunitate edo herriarenak ere.*

*Euskararen lurraldea, euskal lurraldea, zazpi eremu administratibo linguistikotan banatuta dago: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa Garaiko zonalde euskalduna, mistoa eta erdalduna, Estatu Frantsesaren menpe dauden hiru lurraldeak eta EAEko lurraldearen barruan dauden arren Estatu Espainiarreko erdal Erkidegoetara adskribituta dauden eremuak, alegia, Trebiñoko Konderrria –Gaztela eta Leongo Erkidegoan– eta Turtzioz-Billaberde –Kantabriako Autonomia Erkidegoan–, bietako biztanleak ere EAEko partaide izatea aldarrikatu dutenak. Horietariko bakoitzean euskarak estatus juridiko desberdina du. Euskal herritarrak, banaketa horren arabera, euskarak inolako aintzatespen ofizialik ez duen lurraldean egon daitezke edo menpeko ofizialtasuna duen lurraldeetan.*

*Pertsona bezala, beraz, euskal herritarrek eskubide desberdinak dituzte administrazio desberdinen aurrean eta, guztietan ere, eten gabe urratzen zaizkie, baita menpeko ofizialtasunaren arabera euskara erabiltzeko onartuta dituzten eskubideak ere<sup>(\*)</sup>. Finlandian suediar hiztunak duten estatusarekin konparatuz gero, argi dago euskal herritarren norbanakoen eskubideen egoera askoz ere larriagoa dela.*

*Horrez gain, euskara bertoko hizkuntza, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, nazio hizkuntza, Europako hizkuntza zaharrena izan arren eta desagertze zorian dagoen arren, ezein erregimen juridikok ez dio onartzen izaera horretatik ondorioztatu beharko litzatekeen babes edota sustapen berezirik, ez behintzat, Kataluniako Principaten, Québec-en edota Letonian euren nazio hizkuntzak babestuta eta sustatuta dauden mailan.*

*Euskal Herrian ez dago, beraz, hizkuntz politika nazionalik eta burujaberik, ezta euskararen berreskurapena ziurtatuko duen inolako planifikazio nazionalik ere. Aitzitik, zatiketa administratiboan, ukazioan eta, eskubideetan, norbanakoen zein hizkuntz komunitateen arteko desberdintasunean oinarritutako hizkuntz politika da indarrean dagoena.*

*Euskal Herrian euskarak duen babes juridikoa, euskal herritarren hizkuntz eskubideek duten babes juridikoa, nazioarteko zuzenbidean jasotako adierazpen eta neurriekin eta euskararen egoeratik hurbil egon daitezkeen beste herri batzuetan hartutako neurriekin erkatuz gero, alde handia dagoela ikus daiteke.*

---

<sup>(\*)</sup> Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren 2001.eko urteko txostenak agerian uzten du egoera hau.

*XX. mendean zehar, batik bat euren identitatea defenditu beharraren kontzientzia hartu duten herri menperatuaren presioaren eskutik, hizkuntz eskubideen inguruko formulazioak sendotuz joan dira, bai nazioarteko legedian eta bai burujabetasun maila batekin euren hizkuntz politika arautu ahal izan duten herrien legedian. Eskubideen aintzatespen hau modu hazkorrean gertatzen ari da, alegia, gero eta indar handiagorekin gailentzen ari da. Hizkuntz eskubideak zapalduta sentitzen dituzten herriek, eurek ere, aurreratzen eta garatzen ari dira zor zaien eskubideekiko jabetza maila.*

*Bartzelonako **Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala** bilakaera horren lekuko eta mugarri da aldi berean, hizkuntz komunitateen arteko berdintasun printzipioa aldarrikatuz eta pertsona, hizkuntz talde zein hizkuntz komunitate ororen hizkuntz eskubideak bermatzeko karta formulatuz. Karta hori, hizkuntzen arteko gatazkak konpontzeko bidea ez ezik, euren eskubideen kontzientzia hartzeko tresna eraginkorra ere bada hizkuntz eskubideak urratuta dituzten herrientzako.*

***Deklarazio honi zein hizkuntz ordezkatzeko politikak nozitu dituzten herriek burujabeki ezarri dituzten politikei so eginez gero, bost printzipio nagusi agertzen dira, ezinbestez, hizkuntz eskubideak bermatzerako orduan:***

- 1. **Burujabetasuna.** Hizkuntz komunitateek eta herriek eskubidea dute euren identitatearen ezaugarri nagusia den hizkuntzaren biziraupena bermatzeko eta hizkuntza horren garapen osoa ziurtatu eta bultzatzeko egokiak diren politikak indarrean jartzeko, burujabeki, inolako interferentziarik gabe.*
- 2. **Berdintasuna.** Herritarren arteko eskubide berdintasuna bermatzeko, ezinbestekoa da herrien, hizkuntz komunitateen arteko eskubide berdintasuna bermatzea.*
- 3. **Berreskurapena.** Herri orok bere hizkuntza gutxituaren errehabilitazioa ziurtatzeko eskubidea duela, alegia, politika suntsitzaileen ondorioz zatitu eta desegituratutako hizkuntz komunitatea osatzeko neurriak har ditzake, horixe baita hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko modu bakarra eta herri horri zor zaion kalte-ordain historikoa.*
- 4. **Herri-nortasuna, lehentasuna.** Herriek eskubidea dute euren berezko hizkuntza, euren hizkuntza nazionala, lehentasunezkoa izan dadin euren lurraldean eta, printzipio honen eta aurreko besteen arabera, hizkuntza horren lurraldean bizi diren herritar guztiek hizkuntza hori erabiltzen jakin dezaten.*
- 5. **Erabilera.** Edozein hizkuntz politikak pertsona orok bere hizkuntza erabiltzeko duen eskubide pertsonala bermatu behar du.*

*Printzipio horiek kontuan hartzen dituzten herriek, euren hizkuntza berreskuratu eta babesteko aplikatzen duten politikaren araubidea hiru ardatz nagusitan garatzen da:*

- Nazio hizkuntza administrazio eta zerbitzu publikoen hizkuntza izatean.*
- Hezkuntzaren bidez hizkuntzaren transmisioa ziurtatzean.*
- Sektore pribatuak herritarrekiko duen harremanetan hizkuntzaren erabilera ziurtatzean, gutxienez berdintasun irizpidearekin.*

*Horrez gain, lurraldetasuna ere irizpide nahiko hedatua da, lurraldearen oreka soziolinguistikoa mantentzearen.*

*Euskal Herria printzipio horiek kontuan hartzetik oso urrun dago. Euskaldunek euskarari aplikatzen zaion araubidea jasan behar dute eta bertan horietariko printzipio bakar bat ere ez da betetzen. Bestalde, indarrean dauden hizkuntz politiken araubidean aipatu ditugun hiru ardatz nagusiek ez dute tokirik oraindik. Ondorioz, euskarak desagertzeko bidean jarraitzen du.*

*Azken hogeita urteetan indarren jarri diren neurri juridiko positiboak, lurralde desberdinetan egon diren aurrerapen edo atzerapenak gora-behera, ez dute lortu euskararen egoera larriari inflexio puntu argirik jartzea. Neurri instituzional horiei eta, batez ere, herritarren kemen izugarriari esker euskararen egoera hobetzea lortu bada ere, ez da arriskutik atera. Euskal Herri osoa kontuan hartuz gero, euskararen gainbehera gelditu egin den arren, euskaldunen kopuruak ez du gora egin azken bi hamarkadetan. Azterketa lurraldeka eginez gero, aldiz, zenbait lurraldetan euskararen gainbehera larria nabarmentzen da. Bestalde, lurralde euskaldunenetan hizkuntz ordezkatzeko prozesua ez da gelditu. Azkenik, euskara ofiziala den eremuetan indarrean dagoen hizkuntz politikak ere ez du ziurtatzen eremu horietan inoiz oreka soziolinguistikoa lortuko denik, horretarako behar den ezinbesteko baldintza, alegia, euskararen ezagutza, belaunaldi berrietan ez baita ziurtatzen. Izan ere, eskolaratze urteak bukatzen dituztenean erdaldun elebakar gizarteratzen den gazteen portzentajeak sine die urruntzen du ezinbesteko baldintza hori, euskara ofiziala den eskualde batzuetan, portzentajea %50ekoa izanik. Administrazioan ere antzerako egoera aurkitzen dugu, ez baita ziurtatzen ari euskal administrazio nagusietako hizkuntza euskara izateko behar den oreka soziolinguistikoa inoiz lortzeko ezinbesteko baldintza.*

*Bestalde euskararen erabilerak aurkitzen dituen oztopoak, instantzia ofizialetan zein bizitzako eremu guztietan, ezinezkoa egiten du Euskal Herrian euskaraz bizitzea. Herritarren frustrazioa eta erdaren kulturek, politikoki eta juridikoki duten posizio nagusia eragina izaten ari dira euskararen erabileraren hazkundearen moteltzean. Berez ere hazkundera nahiko geldoa izanik, lurralde euskaldunenetan moteltze nabarmena izan du 1997-2001 epean<sup>(\*)</sup>.*

*Euskal Herriko hizkuntz eraentza beste herri batzuetan ezarrita dagoenarekin erkatzeaz batera, argi ikusten da euskal herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko eta gure herriak bere hizkuntz eskubideak bermatuak izan ditzan, ezinbestekoa dela Euskal Herrian arestian aipatutako bost printzipio horien arabera hizkuntz politika ezartzea. Euskal herritarren hizkuntz eskubideen bermeak, norbanakoek euskara erabiltzeko eskubidea segurtatzea ez ezik, euskararen etorkizuna bermatzea eta berreskurapena ziurtatzeko bideak jartzea eskatzen du.*

*Horrenbestez, Udalbiltzak honako hau aldarrikatzen du:*

## **II. IDAZPURUA**

---

<sup>(\*)</sup> SEI Elkarteak egindako kale erabileraren neurketaren datuek hala adierazten dute.

## **EUSKAL HERRIAK BEHAR DUEN HIZKUNTZ POLITIKARI DAGOZKION PRINTZIOAK**

1. **Berdintasuna, ofizialtasuna.** Hizkuntz komunitate guztiak eskubideetan berdinak izanik, euskal herritarrek eskubidea dute euren estatusa euskararekiko Euskal Herrian espainolek Espainian espainolarekiko eta frantsesak Frantzia frantsesarekiko dutenaren parekoa izateko, alegia haienen eskubide berdinak aitortzeko. Eskubidea dute beraz, euskara espainola Espainian eta frantsesa Frantzia bezain ofiziala izan dadin Euskal Herriko lurralde osoan.

2. **Berreskurapena, hizkuntz komunitatea berrosatzea.** Euskal herritarrei Euskal Herriak jasan duen euskararekiko politika suntsitzailearekiko kalte-ordain historikoa zor zaie. Horrenbestez, euskal herritarrek eskubidea dute, euren hizkuntzaren biziraupena bermatzeko xedez, hizkuntz komunitatea berrosatzera zuzendutako politikak ezar daitezzen, oreka soziolinguistikoa lortzeko ezinbesteko baldintza inoiz lortu dadin, hizkuntz komunitatea, iraganean bezala etorkizunean, lurralde osoko biztanle guztiek osa dezaten.

Printzipio honen arabera, egoera soziolinguistikoa kontutan hartuz, herritarren hizkuntz eskubideak segurtatzeko, bidezkoa eta beharrezkoa da eskualde eta udalerrri euskaldunetan, egungo oreka soziolinguistikoa mantendu eta euskararen erabilera nagusi izaten jarrai dezan, babes neurri bereziak ezartzea. Ereku eta lurralde erdaldunetan, aldiz, beharrezkoa da egungo oreka soziolinguistikoa eta euskararen erabilera mantendu eta areagotzeko babes neurri leunagoak baina gorantzkoa tendentzian aplikatzea, aurrerabidea ahalbidetzeraren.

3. **Eskubideen bermea.** Euskal herritarrek eskubidea dute, euren lurraldean ezartzen den hizkuntz politikak euskal herritar guztien hizkuntz eskubide guztiak berma ditzan, pertsonalki edonon erabiltzeko zein hizkuntz komunitate gisa.

4. **Hizkuntza nazionala.** Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa da, eta beraz, euskal herritarrek eskubidea dute hizkuntza nazional izendatua izan dadin eta, ondorioz, euskara lehentasunezko hizkuntza izan dadin Euskal Herrian, bere erabilera ekintza positiboaren bidez sustatuz.

Halaber, euskal herritarren hizkuntz eskubideen babes eraginkorrak eskubideon babeserako hizkuntz politika Euskal Herri mailakoa izatea eskatzen du, zatiketa politiko eta administratiboak gaituz eta beronen jarraipena aginte bakarraren esku egonik.

5. **Hizkuntz politika burujabea.** Euskal herria bere lurraldean dagoen hizkuntz komunitatea den neurrian eta euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa izanik, Euskal Herriak eskubide osoa du hizkuntzaren politika burujabeki aratzeko, Euskal Herriko kanpoko inork derrigorturiko edo induzituriko inolako interferentziarik gabe eta, politika horren arabera:

- a) Euskararen erabilera gizarte funtzio guztietan ziurta dadin baliabideak antolatu eta kudeatzeko.
- b) Euskararen transmisioa eta jarraipena behar diren baliabideak eskura izateko.
- c) Euskara kodetzeko, estandarizatzeko, garatzeko eta sustatzeko.

*Printzipio hauen arabera, honako eskubide hauek aitortu behar zaizkie euskal herritarrei Euskal Herri osoan:*

### **III. IDAZPURUA**

#### **EUSKAL HERRITARREN HIZKUNTZ ESKUBIDEAK**

*Euskal herritarrek eskubidea dute:*

- 1. Euskara ofizial, hizkuntza nazional eta lehentasunezko izendatua izan dadin Euskal Herriko lurralde osoan, gaztelania eta frantsesa egun ofizial diren lurraldeetan ofizial izatearen kaltetan gabe.*
- 2. Halaber, euskarak estatus ofiziala izan dezan Europar Batasunean.*
- 3. Euskal Herrian hizkuntz politika bakarra finkatu dadin euskara babesteko, bere jarraipena ere aginte bakarraren esku utziz, zatiketa administratibo eta politikoen gainetik, politika horrek lurralde eremu desberdinetan izan behar duen modulazioaren kaltetan gabe.*
- 4. Alor publikoko jarduera guztiak euskaraz egiteko.*
- 5. Euskaraz idatzitako edozein dokumentu pribatu zein publiko baliozkoa eta eraginkorra izan dadin.*
- 6. Alor pertsonalean eta familiarrekoan euskara erabiltzeko.*
- 7. Euskal sistema onomastikoa erabiltzeko.*
- 8. Euskal Herriko toki-izenak euskaraz erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatu, publiko zein ofizialetan eta, halaber, toki-izen autoktonoak finkatu eta gordetzeko eta arbitrarioki edo gorabehera politikoen kariaz izenok inork ez ordezteko.*
- 9. Euskara ikasteko eta horretarako laguntza jasotzeko, ahal izanez gero euskalduntzea dohainik izan dadin.*
- 10. Euskararen erabilera ekintza positiboan bidez sustatu dadin.*
- 11. Eskualde eta udalerrri euskaldunetan lurraldetasun irizpidearen araberako neurri babesleak har daitezten, baita eremu horien garapena hizkuntz sostengarritasuna bermatuz egin dadin.*

#### **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ETA ORGANO OFIZIALEI DAGOKIENEZ**

- 12. Euskal Herriko aginte publikoen aurreko edozein jarduketa administratibo, judicial edo polizial, ahozkoa zein idatzia, euskaraz egiteko. Ahozko jarduketan kasuan euskal herritarrek eskubidea dute harremana itzultzailearen bitartekaritzarik gabe izan dadin.*
- 13. Euskal Herrian ekoizten den dokumentazio ofizial, lege eta gainerako arau juridikoak euskaraz ere izateko, beranduen ere, beste hizkuntzetan argitaratzen den momentuan.*
- 14. Euskal Herriko erregistro publikoetako idazpenak, notarioek edo fede publikoa duten funtzionarioek baimendutako dokumentuek euskaraz idatzi daitezten.*

15. *Euskal Herrian dagoen edozein administraziok herritarrekiko garatzen dituen beste edozein harreman euskarari lehentasuna eman dakion.*
16. *Euskal Herrian ordezkari instituzionalen batzarrak euskaraz burutu ahal izateko.*
17. *Euskal Herriko erakunde publiko orotako lan hizkuntza euskara izan dadin.*
18. *Auziperatze prozesuak euskaraz izan daitezzen, baita epaiketak ere, epaile, abokatu, fiskal eta idazkari judizial euskaldunekin.*
19. *Osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko.*

#### *HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ*

20. *Hezkuntza sistemak euskararen transmisioa berma dezan.*
21. *Euskaraz ikasteko, ikasketa eta prestakuntza maila guztietan (haur, lehen eta bigarren hezkuntza, lanbide heziketa, ikasketa unibertsitarioak eta ikerketa maila), inolako murrizketarik gabe.*

#### *ALOR SOZIOEKONOMIKOARI DAGOKIONEZ*

22. *Merkatal zein kontsumitzaile jarduera oro euskaraz egin ahal izateko, balio juridiko osoarekin, euskararen erabilpenarekiko inolako murrizketarik gabe, hala nola ondasun eta zerbitzuen salerosketa, banku-eragiketa, aseguru, lan-kontratu eta gainerakoak, eta halaber jarduketa horiek burutzeko behar diren agiriak euskaraz eskura izateko.*
23. *Kontsumitzaile gisako informazio eta publizitate oro euskaraz jasotzeko, eta ez beste hizkuntzetan baino beranduago (errotuluak, etiketak, dokumentazioa).*
24. *Euskal Herrian merkaturatzen diren informatikako softwareak eta, sormen artistikoaren ondorio ez izanik, erabilera ikus-entzunezkoa edo interaktiboa duten produktuak euskaraz merkaturatu daitezzen, eta ez beste hizkuntzetan baino beranduago.*
25. *Euskaraz lan egiteko, herritarren hizkuntz eskubideekiko errespetuak behar duen murrizketa bakarrarekin.*

#### *KULTURARI ETA KOMUNIKABIDEEI DAGOKIENEZ*

26. *Informazioa euskaraz jasotzeko.*
27. *Komunikabide publikoetako lan hizkuntza euskara izan dadin.*
28. *Euskal Herrian sarbidea duen komunikabide orok euskararen presentzia nahikoa berma dezan.*
29. *Euskarak toki nagusia har dezan gizarte-kultura eta aisiarako gertakari eta zerbitzuetan.*

*Euskal herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko Udalbiltzak bere egiten ditu ondoren adierazten diren lege indarreko neurri hauek eta berauek sustatzeko konpromiso irmoa agertzen du. Halaber, dei egiten die Euskal Herrian agintea duten gainontzeko instituzioei beraien garapena bermatzatzen, behar diren akordio eta plangintzen bidez.*

#### **IV. IDAZPURUA**

### **EUSKAL HERRITARREN HIZKUNTZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO LEGE INDARREKO NEURRIAK**

**Lehenengo atala.-** Euskal Herri osoko berezko hizkuntza izanik euskarak izaera nazional, ofizial eta lehentasunezkoa du Euskal Herrian, gaztelania eta frantsesa egun ofizial diren lurraldeetan ofizial izatearen kaltetan gabe.

**Bigarren atala.-** Euskara Euskal Herriko Hizkuntza Nazionala.

1.-Euskara Euskal Herriko hizkuntza nazionala izanik Euskal Herriko erakunde, entitate zein korporazio publiko ororen ohiko lan hizkuntza izango da horretarako beharrezko lege garapena egin beharko delarik.

2.- Era berean, euskara izango da toponimian erabiliko den hizkuntza, jatorrizko izenek besterik egitea egokiago dela eragiten ez badute; eta hezkuntzako bai eta komunikabide publikoetako ohiko lan hizkuntza ere, legeak garatuko duen moduan.

3.- Euskal Herriko erakunde publikoek euskara bertoko hizkuntza nazionala izanik bereonen gizarte erabilera publiko orokortua erdiesteko betebeharra izango dute.

**Hirugarren atala.-** Euskara Euskal Herriko Hizkuntza ofiziala eta lehentasunezkoa.

1.- Euskara hizkuntza ofiziala izanik, herritarrek, bereizkeriarik gabe, jardun publiko zein pribatu orotan erabiltzeko eskubidea izango dute, eta erakunde publikoek eskubide hori bermatzeko betebeharra.

2.- Euskaraz buruturiko egintza juridiko orok balio osoa izango du.

***Laugarren atala.- Euskal Herritarren eskubideak eta erakunde publikoen betebeharrak.***

***1.-Gutxieneko eskubide eta betebeharrak:***

*Euskal Herritarrek Euskal Herria osoan eskubidea izango dute:*

- a) *Euskara ezagutzekoa. Hori ahalbidetzeko erakunde publikoek derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan ikasleak euskaldun oso eta garatuak izatea bermatuko duen Hezkuntza, ororentzat ziurtatzeko betebeharra izango dute.*
- b) *Euskara ikastekoa. Hori ahalbideratzeko erakunde publikoek hezkuntza bidez euskalduntzerik ezin izan duten edo atzerritik gurerara etorritakoek daukaten eskubidea bermatzeko betebeharra izango dute, inolako bereizkeriarik gabe. Erakunde publikoek beharrezko neurriak hartuko dituzte euskalduntze prozesua, ahal izanez gero, doakoa izan dadin.*
- c) *Euskaraz ikastekoa. Horretarako aukera emateko haur hezkuntzatik unibertsitate ikasketak amaitzeraino euskarazko eskaintza osoa bermatuko dute erakunde publikoek.*
- d) *Erakunde, entitate eta korporazio publiko ororekin ahoz zein idatziz harremanak euskaraz izatekoa. Erakunde publikoek eskubide hau bermatzeko betebeharra izango dute.*
- e) *Botere publikoen kontzesiopean edota beste edozein esleipen bidez zerbitzuak eskaintzen dituzten enprekin harremanak euskaraz izatekoa. Horretarako erakunde publikoek enpresa hauek publikitate, errotulazioa eta idatzizko dokumentazioa gutxienik euskaraz eskaintzea bai eta ahozko komunikazioa gutxienik euskaraz eskaintzea bermatuko dute.*
- f) *Jarduera pribatu oro euskaraz burutzekoa.*
- g) *Jarduera judizial oro euskaraz burutzekoa eta bereziki euskaraz epaitua izatekoa inolako itzulpen zerbitzu bitartekorik gabe. Erakunde publikoek eskubide hauek bermatzeko betebeharra izango dute.*
- h) *Dokumentu publiko zein pribatu oro euskaraz burutzekoa. Dokumentu publiko zein pribatuen testimonio kopia eta matrize oro itzultzea fede-emaile publikoen ardura izango da. Era berean ezein erregistro publiko zein pribatutan egin beharreko idazpentzeak euskaraz egiteko eskubidea izango da. Erakunde publikoei dagokie eskubide hauek bermatzeko betebeharra.*

- i) *Informazioa euskaraz jasotzekoa. Maila horretan nazio zein herrialde mailako komunikabide publikoen ohiko hizkuntza euskara izango da eta komunikabide pribatuetan erakunde publikoek euskararen erabilera ziurtatzeko betebeharra izango dute.*
- j) *Ingurune soziokultural nahikoa euskaraz izatekoa. Hori ahalbideratzeko erakunde publikoek beharrezko diren zerbitzuak eta produktuak bermatuko dituzte.*
- k) *Kontsumitzaile gisa, zerbitzuak euskaraz jasotzekoa. Horretarako erakunde publikoek gutxienik ondokoa bermatuko dute Euskal Herria osoan:*

- *Kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako informazioa Euskal Herrian zabalduriko produktuetan gutxienik euskaraz egotea.*

- *Herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresekiko harremanetan erabiltzaileek harrera, argibideak eta zerbitzuak jasotzeko beharrezko kontratuak eta gainontzeko dokumentazioa euskaraz jaso ahal izango dituztela. Oinarrizko zerbitzuetatik hartzen dira ur, gas eta argindarraren horniketa, telefono zerbitzuak, aseguruak eta antzerakoak.*

- *Herrialdeko edota Euskal Herria osoko hedadura duten entitate pribatuetako publizitatea, errotulazioa eta idatzizko dokumentazioa gutxienik euskaraz egotea.*

**2.- Euskaldun kopurua %25etik %50era artekoa den edota 1000 euskaldunetik gora dituzten udalerrietan:**

*Erakunde publikoek ondokoa bermatu beharko dute.*

a) *Herrialdeko edota Euskal Herria osoko hedadura duten entitate pribatuekin kontsumitzaile gisako ahozko harremanak euskaraz burutzeko eskubidea. Horretarako erakunde publikoek ziurtatuko dute udalerrri hauetan ordezkariak duten entitateek ahozko harremana euskaraz egin ahal izatea bermatzeko baliabideak ipintzen dituztela.*

b) *Udalerrri mailako informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea. Hedabideei dagokionez, udalerrriko hedadura duen komunikabide orok euskaraz edo gutxienik bere zerbitzu jardueraren erdia euskaraz burutu beharko du; beti ere informazioaren integritasuna bermatuz.*

**3.- Euskaldun kopurua %50etik %70era artekoa den udalerrietan:**

*Aurreko ataletan jasotakoaz gain, euskaldungoaren eskubideak bermatzeko erakunde publikoek ondokoa ziurtatuko dute:*

- a) Udalerri mailako komertzio, enpresa edo zerbitzu profesional pribatuetako errotulazioa, publizitatea eta idatzizko dokumentazioa gutxienik euskaraz izatea.*
- b) Udalerri mailako hedabideen jarduera euskaraz edo euskaldun kopuruaren adinakoa izatea.*

#### ***4.- Euskaldun kopurua %70etik gorakoa den udalerrietan:***

*Haurrekoaz gain, erakunde publikoek honako hau bermatuko dute:*

- a) Udalerri mailako hedabideen jarduera euskaraz izango dela.***
- b) Sei langiletik gorako enpresa, komertzio edo zerbitzu pribatuetan euskararen erabilera planak bideratuko direla, herritarren hizkuntza eskubidea babestearren.*
- c) Udallerriaren garapena euskararekiko jasangarritasun irizpidepean egingo dela.*

#### ***Bosgarren atala.- Udalen zehaztapenari buruz.***

*Hizkuntz ezagueraren araberako udalerrien zehaztapenak beti ere aurrerabideko joera izango du eta inolaz ere ez atzerabidekoa.*

#### ***Seigarren atala.- Bultzada instituzionala***

*Erakunde publikoek ekintza positiboaren bidetik euskararen berreskurapenerako jarduera proaktiboa sustatzeko betebeharra izanen dute.*

*Bide horretan erakunde publikoek gizarte onuraren sortzaile izaera aurretiaz aitortuko diete Euskararen Gizarte Erakundeei.”*

#### **4.-Euskararen Udal Ordenantzen hasierako onespena.**

Jose Maria Sarasola alkate jaunak, berriro ere, Mikel Errazkin zinegotziari eman dio hitza.

*Mikel Errazkin jaunak Euskararen Udal Ordenantzen helburua zein den eta berauek sortzeko arrazoiak zeintzuk izan diren azaldu du. Esan du gaurko Osoko Bilkura hau elkarrekin lotutako hainbat punturen korrelazio bat izan dela eta azkenik, guztiaren kulminazio gisa Euskararen Ordenantzei onarpena ematea dagoela.*

Ikusirik Euskara Batzordeak, onartua izan dadin, aurkezten duen “Anoetako Udalean eta Udalerrian Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantzaren” testua.

#### **Erabakia:**

Udalbatzarrerara bertaratutakoek ahobatez honako erabaki hau hartu dute:

Lehenik:Anoetako Udalean eta Udalerrian Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantza hasierako izaeraz onartzea.

Bigarrenik:Anoetako Udalean eta Udalerrian Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantza jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita 30 laneguneko epean.

Hirugarrenik: Jendaurreko erakusketaren epea bukatu ondoren erreklamazioak aurkeztu ezker, espediente berriz ere Osoko Bilkurara eramatea aurkezturiko erreklamazioak ebatz ditzan eta behin betiko onarpena eman diezaion Anoetako Udalean eta Udalerrian Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantzari.

Laugarrenik:Jendaurrean dagoen epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, orduarte behin behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko da.

Bostgarrenik:Azkenik, behin betiko erabakia edo izaera hori eman zaion behin behineko erabakia eta Anoetako Udalean eta Udalerrian Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatuko dira.

## **5.-Euskalgintzako Komunikabide eta taldeen dirulaguntzak.**

Jose Maria Sarasola alkate jaunak hitza eman dio Euskara Batzordeburua den Mikel Errazkin jaunari.

*Mikel Errazkin jaunak Euskara Batzordean erabakitakoaren arabera ondoko dirulaguntza proposamena azaldu du:*

Euskalgintzako komunikabide eta taldeei 2003ko dirulaguntzak banatzea.

- 2003 urtean, euskararekin zerikusia duten hainbat komunikabide, talde eta erakunderen dirulaguntza eskaerak jaso ditu Anoetako Udalak. Hona hemen zerrenda:

*Galtzaundi Euskara Taldea (3.015 Euro), Tolosaldeko Hitza (5.169 Euro), Txolarre Irratia (1.723 Euro), Korrika (300 Euro kilometroko), Kontseilua, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Ibilaldia, UEU eta Argia aldizkaria.*

- Erakundeen artean sailkapena egitea proposatzen da, hau da, lehentasunak markatzea, behar desberdinak dituztela ere kontuan hartuz.
- Azkenik, UEU eta Argiaren kasuan, aurtan zuzeneko dirulaguntzarik ez ematea proposatzen da. UEUri, adibidez, laguntza indirektoa iristen zaio udalak herritarren matrikulak ordaintzeko ematen dituen dirulaguntzen bidez.

**Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:**

*Honako komunikabide, erakunde edo jarduerak diruz laguntzea:*

Galtzaundi Euskara Taldea	2.262 Euro
Tolosaldeko Hitza	5.169 Euro
Txolarre Irratia	862 Euro
Korrika 2003	300 Euro
Kontseilua	1.200 Euro
Araba Euskaraz	200 Euro

Nafarroa Oinez	200 Euro
Herri Urrats	200 Euro
Ibilaldia	100 Euro

Orotara, **10.493 euro** banatzea dirulaguntzetarako.

### **Erabakia:**

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onartu dute Euskara Batzordeak aurkezturiko dirulaguntzen proposamena.

### **6.-Anoetako armarriaren aldaketaren hasierako onarpena.**

Alkate jaunak hitza ematen dio Mikel Errazkin zinegotzi jaunari:

*Mikel Errazkin jaunak azaltzen du armarriaren istoriarekin kezka bat planteatua zegoela Udalean eta herrian ere, hau da, gaurkotasun prozesu baten beharra zegoela eta horrekin hasi beharra zegoela.*

*Mikel Errazkin jaunak dio, horrek azterketa bat egin beharra zegoela esan nahi zuela, eta horregatik eskatu zitzaioela ARANZADI zientzia elkarteari azterketa hori egitea, eta hau espedientean jasota dagoela dio.*

*Honen aurretik Anoetan prozesu zabal eta irekia eraman dela aurrera dio, hilabeteko epea zabaldu zelarik herritarrek euren proposamenak aurkez zituzaten. Guzti honen asmoa Anoeta gehien ordezkatzeko zuen proposamena lortzea zela dio eta gaur Osoko Bilkurara ekarri den proposamenaren azalpen laburra egin du jarraian:*

*“Lurraldetasuna: Oria ibaia*

*Historia:Basagain:Burdin Aroko Herrixka*

*Herritarrak:kukua.Anoetarrak horrela identifikatuak izen baitira beti inguruan.Kukuaren kolore beltza aukeratu da sexu bereizketarik ez egiteko, kuku arra marroixka baita eta emea grisa.”*

Ikusirik Anoetako armari aldaketari buruzko espedientea.

Ikusirik Armarrria aldatzeko Batzorde Bereziaren proposamena.

Kontuan harturik ARANZADI Zientzia Elkarteak eginiko Txostena.

**Erabakia:**

Udalbatzarrera bertaratutakoek, ahobatez, hurrengo erabakia hartu dute:

Lehenik: ARANZADI Zientzia elkarteak proposaturiko eta herritarren gehiengoaren bozketa lortu duen armariari hasierako onarpena ematea.

Bigarrenik: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian akordio honen iragarkia publikatu eta azken publikaziotik kontaktzen hasita, hilabeteko epean, izapidetutako espedientea jendaurrean jartzea.

Hirugarrenik: Onartutako proposamena eta izapidetutako espedientearen kopia bat, txostena barne dela, Eusko Ikaskuntzara bidaltzea, dagokion txostena eman dezan.

Laugarrenik: Jendurreko hilabeteko epea igaro aurretik inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, edo aurkeztu ezkerreko hauei buruzko erabakia Osoko Bilkurak hartu ondoren, izapidetutako espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko da, honek behin betiko onarpena eman diezaion eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu dezan behin betiko ebazpena.

Alkateak jarraian opari bat dagoela prestatua esan du, Anoetar batek abesti bat kantatuko duelako gitarraz lagundurik.

Abestia bukatu ondoren, Mikel Errazkin zinegotzi jaunak esan du amaitu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiola gaurko Udalbatzarra hau posible egin duten eta horren prestaketan lagundu duten Lander Etxebarria, Inazio Agirre eta Idoia Olanori.

Eta bukatzeko Andoni Egañaren hitz batzuk bota ditu:

*“Hitzak egiten gaitu euskaldun  
euskaltasunak munduko  
herri euskaldun bat lortu arte  
gu ez gara geldituko”*

Eta besterik gabe, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpìrak hogeï gutxi diranean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede enaten dudalarik.

O.E.

ALKATEA

IDAZKARIA